

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-2128 errepidean, Kontrastako zeharbidean, ikusgarritasuna eta bide segurtasuna hobetzeko ibilbidearen proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 21eko 333/2019 Erabakiaren bidez, “A-2128 errepidean, Kontrastako zeharbidean, ikusgarritasuna eta bide segurtasuna hobetzeko ibilbidearen proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagoztat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatien planoak eta eragindako titularren zerrenda Haranako (Alda) Udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 22a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

A-2128 ERREPIDEAN, KONTRASTAKO ZEHARBIDEAN, IKUSGARRITASUNA ETA BIDE SEGURITASUNA HOBETZEKO IBILBIDEAREN PROIEKTUA
 PROYECTO DE TRAZADO DE MEJORA DE VISIBILIDAD Y SEGURIDAD VIAL EN LA TRAVESIA DE KONTRASTA EN LA CARRETERA A-2128

FINKAREN ZK.	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	ERAGINDAKO OINDEKUA	ERAGINDAKO AZALERA m ²	
	1/000	POLIGONO			ERAGINDAKO BEHIN-BETIKOA	ERAGINDAKO ALDI BATERAKO
Nº FINCA	DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	BIEN AFECTADO	SUPERBIZIA m ²	
1/000	POLIGONO	PARCELA			DEFINITIVA	TEMPORAL
	1	977	HARANA / VALLE DE ARANA	ERAIKINA / EDIFICIO	117,78	
	INDUSTRIAS OROZKO BIZKAYA S.L.					

Esp./Expte. 2019/7